



# 101 BERBA

Oñatierazko mikro-narrazioen 1. lehiaketa (2026)

## 1. Lehiaketaren helburua

Eskolarteko lehiaketa honen helburua oñatiera bultzatzea da, hika barne, eta aldi berean gazteen artean euskararen erabilera eta sormena sustatzea. Oñatieraz idatzitako narrazio hiper-laburrak izango dira horretarako bidea.

## 2. Lehiaketako sariak

1. Kategoria: DBH 3-4

1. saria: 200 euroko erosketa-bonua

2. saria: 100 euroko erosketa-bonua

Sari berezia: Ingo Xonau! saria, hika idatzitako narrazio onenarentzat: 100 euroko erosketa-bonua

2. Kategoria: Batxillerra 1-2

1. saria: 300 euroko erosketa-bonua

2. saria: 200 euroko erosketa-bonua?

Sari berezia: Ingo Xonau! saria, hika idatzitako narrazio onenarentzat: 100 euroko erosketa-bonua.

Epaimahaiak sariren bat hutsik uztea erabaki dezake, aurkeztutako lanek kalitate nahikorik ez dutela ikusten badu.

## 3. Lehiaketara aurkezteko bete beharreko baldintzak

-Lehiaketan Oñatiko 15 urtetik 18 urte bitarteko gazteek parte har dezakete.

-Narrazioak ezingo ditu 101 hitz baino gehiago izan eta ezta 11 hitz baino gutxiago ere.

-Narrazioak oñatieraz idatzita egon behar du; hika egotea era positiboan baloratuko da.

-Parte hartzaile bakoitzak gehienez bi narrazio aurkeztu ahal izango ditu.

-Narrazioak aurretik argitaratu gabea eta inon saritu gabea izan beharko du eta ezingo du aurretik sortutako narrazio baten zati bat izan, ezta beste egile batek ala Adimen Artifizialak egindakoa ere.

## 4. Eskakerak non eta noiz aurkeztu

Narrazioak Oñatiko Udaleko Euskara Zerbitzuan aurkeztuko dira, e-postaz bidalita: [narrazioak@onati.eus](mailto:narrazioak@onati.eus)

Narrazio bakoitzarekin batera, datu hauek aurkeztu beharko dira: egilearen izen-abizenak, jaioteguna eta telefonoa. Ikastetxea ere bai.

Narrazioak aurkezteko epea 2026ko maiatzaren 6an hasiko da eta maiatzaren 31n bukatuko da (biak barne).

## 5. Epaimahaia

Epaimahaia euskara adituek osatuko dute: euskara teknikaria, udal euskaltegiko kide bat, Ingo Xonau! taldeko ordezkari bat... eta ikastetxe bakoitzeko irakasle bat.

## 6. Balorazio irizpideak

-Balorazio-irizpideak:

Zuzentasuna eta egokitasuna.....	
%50	
Edukiaren originaltasuna, umorea.....	
%25	
Oñatiko hika jasotzea (noka edo noka-toka).....	
%15	
Guztira.....	
%100	

Gaia librea izango da.

Konnotazio sexistak, xenofoboak, arrazistak, homofoboak edo iraingarriak dituzten narrazioak baztertu egingo dira.

## 7. Epaia eta jakinarazteko epea

Epaia aldaezina izango da eta aurkeztutako lanen maila egokia ez bada, epaimahaiak lehiaketa epairik gabe utzi ahal izango du.

Irabazleei epaia telefonoz edo ikastetxearen bidez jakinaraziko zaie.

Narrazio irabazleak zein diren 2026ko irailaren hasieran jakinaraziko da komunikabideen bidez eta handik egun batzuetara banatuko dira sariak, Oñatiko jaietan.

## 8. Narrazioen erabilera

Lehiaketan parte hartutako narrazio guztiek Aitortu-Erabili-Partekatu lizentzia librea izango dute, eta antolatzaileek haiek erabiltzeko aukera izango dute (sariren bat eskuratu ala ez), betiere egiletza aitortuta.

Aukeratutako narrazioekin irakurraldi bat egingo da, sari banaketa ekitaldian. Narrazioak gero ikastetxeetan erabili ahal izatea da helburuetako bat.

## 9. Oinarriak onartzea

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.